



EHUN ZUBIGILE HEZKUNTZA SISTEMAREN ETORKIZUNA ELKARREKIN LANTZEN

2021/09/11

9:30 – 14:00

Eureka! Zientzia Museoa

Lehenengo “ehunen-100” foro honetan garatuko ditugun talde hausnarketetan gaur, bihar nahi dugun Euskal hezkuntza sistema irudikatzen hasiko gara. Agenda marrazten hasiko gara, argazki-mosaikoa elkarrekin osatuko dugu.

HELBURUAK

- Hezkuntza ardazten duten gai gakoetan oinarrituta, erronkak identifikatzea.
- Ibilbidean landu beharko genituzkeen aztergaiak eta hauen lehentasunak identifikatzea.
- Eragileen, aliantzen, pertsona zubigileen mapa elkarrekin osatzea.

METODOLOGIA

Foroan aplikatuko den metodologia EHUko Parte Hartuz master eta ikerketa taldearekin, Aztiker soziologia ikergunearekin eta Elhuyarrek lankidetzan garatu da. Parte hartze metodologiaren bitartez, gogoeta eta deliberazioan oinarritzen den foroa burutuko da. Orotara 100 pertsonen osatutako taldea talde txikietan banatuko da, 7 pertsonen eta dinamizatzailer batez osatutako taldeak sortuko dira. Edukiei eta prozesuaren logikari dagokionez, proiektzio-dinamikak gauzatuko dira, ardatz tematikoetan oinarrituta.

Jarraian, ardatz tematikoetan kokatzen laguntzeko testu eta galdera iradokitzaileak eskaintzen ditugu:

| | |
|---|---|
| Hezkuntza, aniztasuna berdintasunean | 2 |
| Hezkuntzaren antolamendua | 3 |
| Hezkuntza ezagutzaren gizartean | 4 |



Hezkuntza, aniztasuna berdintasunean

Zein da gure hezkuntzaren norabidea? Zer nolako gizartea eta herritarrak nahi ditugu hezi? Beste kulturekin solasean, gure hizkuntza, gure kultura eta nortasuna modu iraunkorrean bizitzeko moduz pentsatu, gure baitako askotariko aniztasuna kudeatzeko behar ditugun tresnak landu, beti ere, guztion bizitza duina bermatuko duen jendartea osatzekoa asmoz. Gure hezkuntza sistemak garatu behar dituen baloreak eta helburu kolektiboetaz hausnartu nahi dugu ardatz honetan.

Desberdintasuna eta desberdinkeria ez dira gauza bera, alta biak ala biak agertzen zaizkigu gaur hezkuntzan. Lehen erroka gisara jasotzen dugu, bigarrena gainditzeko hain zuzen ere. Aniztasuna hauteman eta, hala beharrez aitortu, behatu, aztertu eta horren arabera ekin beharko dugu.

“RS: -Oholtzatik jaisten zarenean eta ibiltzen hasten zarenean, bat-batean, usaintzeko modua, mugitzeko modua, oso nabarmena da ikasleentzat. Eta zurekin ere badaramazu nolabaiteko potentzial bat, baina ez berme bat, aurrez aurreko harreman jakin baterako eta diodanarekiko eta esaten duzunarekiko errespeturako. (...)

BH: -Gorputza ezabatzeak gertaera neutral eta objektiboak entzuten ari garela pentsatzera bultzatzen gaitu, informazioa partekatzen ari denarenak ez direnak. Informazioa transmititzera gonbidatzen gaituzte, gorputzetatik sortuko ez balitz bezala (...)

RS: -Irakasleak serio hartuko balu, ikasle-kidegoa errespetatuko balu, historiaren parte den jendeari zuzentzen zaiola onartzera behartuta egongo litzateke. Eta pertsona horietako batzuk istorioetatik datoz, eta errekonozimendua ematen bazaie, ezarritako ezagutza-moduetarako mehatxu izan daitezke ”.

(Ron Scapp eta Bell Hooksen arteko elkarrizketa. Hoosk, 2021: 160-161)

“Lehenik eta behin, argi utzi nahi dut segregazioa gertatzen dela gizartearen aniztasuna islatzen ez duten eremu guztietan: genero aniztasuna, jatorriari edo arrazari dagokiona, familien osaerari dagokiona, kultura aniztasuna, hizkuntza aniztasuna eta abar; izan liteke eskolan, parlamentuan, enpresa batzordean edo erakunde antirrazista batean (...) Hala, baieztatu daiteke Nafarroako eskola eremuan badagoela arraza segregazioa. 2019-2020ko ikasturtean, ikastetxe pribatuak ikasle kanpotarren %16 baino ez zituzten hartu, eta eskola publikoek, berriz, %84 (...) Baina azpimarratzekoa da eskola publikoetan ere izaten dela arraza segregazioa: zentro batzuetan, ehuneko handi bat dira ikasle atzerritarrak, eta beste batzuetan, ratioak oso txikiak dira. Kontu endemikoa da. Hori zentroen edo gurasoen jarreraren ondorio da batzuetan, baina hezkuntza publikoan arraza segregazioa izateko arrazoi nagusia, gaur-gaurkoz, hezkuntza sisteman bertan dago: hizkuntza ereduetan. Ikasle ijito, arrazializatu eta atzerritar gutxi edo oso gutxi izaten dira bereziki D ereduaren —euskarazkoan—“.

(J. Indurain, Nafarroako SOS arrazakeria. Berria, 2021-02-13)



Gaurko heziguneetan, berdinak ala desberdinak dira/gara? Zein gorputz banakako, sozial eta politikotik datoz ezarritako jakintza modu hoiek?



Hezkuntzaren antolamendua

Hezkuntza egitura eta eskola eredu oso desberdinak ditugu gure lurraldeetan, hezkuntza mapa aberatsa eta anitza. Mapa hori ezagutzea ezinbestekoa da gure hezkuntzari buruzko etorkizuneko gobernantza antolatzeke. Hezkuntzaren ardura duten langile, erakunde, eragile, aditu, eta herritarren arteko lankidetzaren ereduak buruz pentsatzea dagokigu. Berrikuntzari eta giza garapenari bide emango dion hezkuntza nola antolatu eskoletan eta beste hezkuntza egituretan? Hezkuntza sistemaren egituraketaz eta funtzionatzeko moduetaz hausnartuko dugu ardatz honetan.

Antolamendua eta autonomia eskutik elkar hartuta datozela irizten diogu, bigarrena hala beharrez pentsatu beharko dugularik lehenengoaz ari garenean.


Behin eta berriz ageri ohi zaigun galdera da ikastetxeen autonomiari loturikoa; ikastetxeek autonomia gehiago izan beharko al lukete beraien proiektuak garatzeko, maila, esparru eta alor askotan era egokiagoan (denboraren gestioa, ordutegia, ekipamendua, adinaren eta gaitasunaren arabera sailkatzea e. a)?

Aldi berean, antolakuntza eta autonomia uztartuta sortzen zaizkigun galdera saldoa zehaztapen maila ezberdinetan ere kokatu genezake, gisa honetan, autonomia araugile-normatiboaz, ikastetxeen barne eraketa eta funtzionamenduari begira dagoenaz edota kanpo antolaketari begira aztertu genitzake.

Beti ere, Eusko Ikaskuntzaren sorreratik bertatik (1918) kezka hau behin eta berriz agertu izan da hezkuntzari atxikitako eztabaidan:

"Hizkuntzaren ondoren, eta agian bera baino lehenago, horixe da konponbide berehalako eta erradikalenak eskatzen dituzten arazoetako bat, Kongresu honetatik ateratzen diren akordioak emaitza positibo eta praktikoetan emankorrak izatea nahi badugu. Gure hizkuntza salbatu nahi badugu, gure ohiturak salbatu nahi baditugu, eta, hitz batean, Vasconia salbatu nahi badugu, lan egin behar dugu irakaskuntza gurea izan dadin, maisuak gureak izan daitezten, udalek hauta ditzaten, irakaskuntza gizartearen eginkizuna baita, eta gizarteak jaramonik egiten ez badio bakarrik da Estatuaren eginkizuna".

(J. Elorza Aizpuru, 1918)



"Imajinatu al ditzakegu, zehazki, errekrutatu gabe, zentralizatu gabe eta aldi berean itxi gabe irekitzeko gai diren harreman eta erakundeak?"

(M. Garcés, 2020:58)

Zein gobernatza ereduren baitan?



Hezkuntza ezagutzaren gizartean

Zein da hezkuntza-sistemaren lekua ezagutzaren gizartean? Informazioa biderkatzen duen gizarte teknologikoan, gure herritarren eta gizartearen ezagutza eta intelijentzia kolektiboa nola sendotu eta garatu daitezke hezkuntzaren bitartez? Kultura, sorkuntza artistikoa, sozio-ekonomia, zientzia eta teknologiaren esparruekin zer nolako harremana garatu behar du hezkuntza-sistemak? Gizarte gisa ditugun erronkei aurre egiteko hezkuntzak bete beharreko paperaz hausnartu nahi dugu ardatz honetan.

Gizarte gisa ditugun erronkei hezkuntzatik bilatu beharreko galdera eta erantzunetan murgiltzea dagokigu orain, gaurko hezkuntzak, argi luzeak jarri eta jokatu beharreko paperaz hain zuzen ere; Zein da hezkuntza sistemaren lekua ezagutzaren gizartean? Informazioa biderkatzen duen gizarte teknologikoan, gure herritarren eta gizartearen ezagutza eta intelijentzia kolektiboa nola sendotu eta garatu daiteke hezkuntzaren bitartez? Kultura, hizkuntza, sorkuntza artistikoa, sozio-ekonomikoa, zientzia eta teknologiaren esparruekin zer nolako harremana garatu behar du hezkuntza sistemak?

“Mundu garaikidearen alderik tristeena zera da: Zientziak azkarrago egiten duela aurrera ezagutzan, gizarteak jakiturian baino”.

Isaac Asimov

"Nire pedagogoa irudia, beraz, ezinbestean dago krisian. Ezin da irakatsi aldi berean ikasten ez bada. Eta orain ezin dizkizut irakatsi ni hezi nauten "gauzak", eta ezin dizkidazu zuk irakatsi zu hezten ari zaizkizun "gauzak" (hau da, bizitzen ari zarenak). Ezin dizkiogu elkarri irakatsi, arrazoi sinple batengatik: haien izaera ez da mugatu beren nolakotasun batzuk aldatzera, erabat aldatu da".

P. Pasolini, Gennariello, 1975ko apirilaren 24an

**Zer ezagutza da “legitimoa” gure hezkuntza sistemetan eta gure gizartean?
Nola lortu hezkuntza-sorkuntza/hizkuntza-kultura/gizarte-komunitate/zientzia-
ezagutzaren arteko gramatika partekatu bat?**